



EBAZPENA (MC 01/2008 espedientea, EUSKO BASQUE SL)

Osoko Bilkura

Javier Berasategi Torices jn. (lehendakaria)

Joseba Andoni Bikandi Arana jn. (lehendakariordea)

Juan Luis Crucelegui Gárate jn. (mahaikidea)

José Antonio Sangroniz Otaegi jn. (idazkaria)

Vitoria-Gasteizen, 2008ko maiatzaren 20an

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren Osokoak (aurrerantzean Auzitegia edo LDEA), goian adierazitako kideekin eta hizlaria Juan Luis Crucelegui Garate jauna izanik, ondorengo ebazpena eman du kautelazko neurriei buruzko MC 01/2008 espedientean. Espedien hau Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (aurrerantzean, LDEZ) egindako proposamenari jarraiki hasi da, JAI ALIVE SL enpresak hala eskatuta, Epaitegiak kautelazko neurriak har ditzan, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legeak (aurrerantzean, LDL) debekatutako jokabidea izateagatik JAI ALIVE SL enpresak aurkeztutako salaketaren ondotik EUSKO BASQUE SL eta EUSKAL TELEBISTA SA enpresen aurka Zerbitzua 009/2007 zenbakiarekin izapidetzen ari den espedientean.

EGITATEAK

1. 2007ko irailaren 26an JAI ALIVE SLk, Iñaki Egiguren Urbistondo jaunaren ordezkarietzapean, salaketa aurkeztu zuen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan EUSKO BASQUE SL eta EUSKAL TELEBISTA SA enpresen aurka, bere iritziz, horiek Lehiaren Defentsari buruzko Legeak debekatutako jokabidea izan zutelako.
2. 2007ko urriaren 18ko probidentziaren bidez, LDEZko zuzendariak EUSKO BASQUE SL eta EUSKAL TELEBISTA SAren aurkako zigor-espedienteari hasiera ematea erabaki zuen eta, horren baitan, salatutako gertakariak ikertu ziren isilpeko informazio-aldian.
3. 2008ko otsailaren 11n JAI ALIVE SLk salaketa zabaldu zuen, sortu berria zen MASTER JAI SL enpresa ere barneratuta.



4. 2008ko otsailaren 20an IÑAKI EGIGUREN URBISTONDO jaunak JAI ALIVE SLren izenean eta ordezkartzan aurkeztu zuen idazkia jaso zen Ogasun eta Herri Administrazio Saileko erregistroan eta beraren bidez eskatu zuen, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 54. artikulua babesean, kautelazko neurriak har zitezela; hala, demandatuei agindu behar zitzaizkien ez zezatela lotzen dituen telebista-kontratua gauzatu edo garatu. Hortaz, EUSKAL TELEBISTA SAK ez zuen EUSKO BASQUE SLren eta MASTER JAI SLren kirol-emanaldirik eskaini behar eta ezta horiei edo Aitor Totorikaguenari inolako diru-kopururik eman behar ere espedientea ebatzi bitartean.
5. LDEZk, LDLn bilduta eta Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren (egun Lehiaren Batzorde Nazionala denaren) praxian emanda dauden kautelazko neurriak hartzeko baldintza juridikoak aipatu ondoren, egitate nabarmen gisa ondoren adierazitakoak azaltzen ditu.
 - 5.1. LDEZren arabera, kasu honetan, EUSKAL TELEBISTA SAREN eta EUSKO BASQUE SLren arteko kontratua eteteko kautelazko neurria, honela emanda, berehala izango litzateke eraginkorra eta horrek tartean den merkatua aldatzea ekar lezake. Hala, prozedura nagusia eragin duen salaketak aurrera egingo ez balu, ondoren nekez inbertitu ahal izango litzateke kontratuaren bilakaeran.
 - 5.2. Halaber esan du kautelazko neurriak eskatu dituenaren salaketaren ondotik hasitako zigor-prozedura instrukzio-fasean dagoela, baina oraindik ez dela Egitateak Zehazteko dagokion Agiria egin. Hortaz, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren iritziz, oraindik ezin da debekatutako jokabidetzat jo zesta-puntako partidak telebistaz emateko EUSKAL TELEBISTA SAREN eta EUSKO BASQUE SLren artean kontratu bat egotea; are gehiago, zerbitzu honetan ez dago jasota kontratua eskusiboa denik.
 - 5.3. Azaldu du ikuskizunak telebistaz emateko kontratua jada bazegoela JAI ALIVE SL sortu zenean eta, beraz, ez da ikusten eskatutako kautelazko neurria hartzea aholkatzen duen inguruabar berririk.
 - 5.4. Bere ustez, kontuan izan behar dira zesta-puntaren zaleen interesak, horiei kaltea eragingo bailieke, 009/2007 espedientea ebatzi bitartean, EUSKO BASQUE SL enpresan antolatutako zesta-puntako partidak emateko debekuak.
 - 5.5. Azkenik, uste du kautelazko neurrien bidez zigortu nahi duen jokabideak eskatzaileari eragin diezaiokeen kaltea diruz ordain daitekeela, lehia askearen aurkako jokabidea dela egiaztatuz gero, merkataritzako auzitegietan kalte eta galeren erreklamazioa aurkeztuta.
 - 5.6. Ondorioz, LDEZk honakoa proposatzen dio Auzitegiari: *"IÑAKI EGIGUREN URBISTONDO jaunak JAI ALIVE SLren izenean eta ordezkartzan aurkeztu zuen kautelazko neurriak hartzeko eskaera gaitzestea"*.



6. Kautelazko neurriak hartzeko proposamena 2008ko martxoaren 14ko LDEAren Osokoak hartutako erabakiaren bidez onartu zuen Auzitegiak izapidetu zedin. Osoko hartan, Juan Luis Crucelegui Gárate aukeratu zen hizlari.
7. 2008ko apirilaren 10ean LDEAk, Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 22ko 261/2008 EDren 41.3 artikuluan ezarritakoa betez, LDEZren proposamenari buruz alegazioak egin nahi zituzten interesdun guztiei dei egin zien. Izapide honetan JAI ALIVE SL eta EUSKAL TELEBISTA SA erakundeak bertaratu dira. EUSKO BASQUE SL enpresak ez du LDEZren idazkiari buruzko alegaziorik egin.
8. EUSKAL TELEBISTA SAK LDEZren txostenarekiko atxikimendua adierazi du eta nabarmendu du, batetik, EUSKAL TELEBISTA SAK eta EUSKO BASQUE SLk sinatutako kontratuak ez diola azken honi eskusibotasunik ematen, EUSKAL TELEBISTA SAK zesta-puntako partidak emateko akordioak egiten baititu kirol-ikuskizunak antolatzen dituzten beste enpresa batzuekin, horien artean, salaketa aurkeztu duen enpresarekin. Era berean, esan du ez dela egiaztatu neurria hartzeko aplikagarri diren arauak jasotzen duten zuzenbide egokiaren itxuraren eskakizuna (fumus boni iuris) betetzen denik.
9. JAI ALIVE SL enpresak, kautelazko neurriak eskatu dituenak, bere eskaerari eutsi dio eta adierazi du ez dagoela ados LDEZk kautelazko neurriak hartzea gaitzesteko Auzitegiari egin zion proposamenarekin. Alegazioetan nabarmendu du zesta-puntako partidak emateko EUSKO BASQUE SL eta EUSKAL TELEBISTA SA lotzen dituen kontratuak eskusibotasuna dakarrela eta garbi utzi du eskusibotasun hori gehiegi erabiltzen dela, bereziki, zesta-puntako munduko txapelketak emateko eskubideak barneratzen dituen kontratuko klausulari dagokionez. Horrek EUSKO BASQUE SL nagusi gisa jartzen du parte hartuko duten pilotariak aukeratzera zesta-puntako munduko txapelketaren antolatzaileekin egin beharreko negoziazioetan.

Bestalde, ohartarazten du inguruabar berriak sortu direla eta horiek ez direla Zerbitzuaren txostenean barneratu. Zehazki aipatu du MASTER JAI SL enpresa sortu dela, 2007ren amaiera aldera. Bere iritziz, enpresa *“sektorean sartu bezain laster, merkatuan dauden pilotariak hitzez kontratatu ditu, modu sistematikoan eta salatu den kontratuan jatorria duen dirua erabilia”*. Laugarren puntuan esan den bezala, horrek JAI ALIVE SLk aurkeztutako hasierako salaketa zabaltzea ekarri zuen.

10. Honako hauek dira espediente honetako interesdunak:

- EUSKO BASQUE SL
- EUSKAL TELEBISTA SA
- JAI ALIVE SL



ARRAZOIBIDE JURIDIKOAK

LEHENENGOA.- Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren proposamena

Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak egindako proposamenean, instrukziogileak Auzitegiari proposatu dio gaitzets dezala IÑAKI EGIGUREN URBISTONDO jaunak JAI ALIVE SLren izenean eta ordezkartzan aurkeztu zuen kautelazko neurriak hartzeko eskaera.

Proposamen horretan Zerbitzuak argudiatu du, espedientean dagoen dokumentazioa eta hori bideratzerakoan burututako eginbideak ikusita, ez dela ikusten eskatutako kautelazko neurria hartzeko arau aplikagarriek ezartzen dituzten behar eta proportzionaltasunaren ezaugarriak betetzen direnik.

Bestalde, adierazi du Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduaren 40.2 artikulua debekatu egiten duela interesdunei konpondu ezin diren galerak sortu edo oinarrizko eskubideen urraketa eragiten duten kautelazko neurriak ematea. Instrukziogilearen iritziz, legezko muga horiek garbi uzten dute kautelaren esparruan proportzionaltasuna ere aplikatzen dela.

Horren inguruan uste du EUSKAL TELEBISTA SAren eta EUSKO BASQUE SLren arteko kontratua eteteko kautelazko neurriak tartean den merkatua aldatzea ekar lezakeela. Hala, prozedura nagusia eragin duen salaketak aurrera egingo ez balu, ondoren nekez inbertitu ahal izango litzateke kontratuaren bilakaeran.

BIGARRENA.- Kautelazko neurriak hartzeko ezarritako eskakizun juridikoak

Desagertutako Lehiaren Defentsarako Auzitegiak (LDA) hainbatetan adierazi du, LDLn (54. artikulua) jasotako kautelazko neurriak hartzea erabakitzeko, beharrezkoa dela zenbait eskakizun betetzea, nola formalak hala materialak.

Eskakizun formalen artean, aipatu beharrezkoa da beharrezkoa dela Zerbitzuak hasitako zigor-espediente egotea (kautelazko neurrien espediente espediente nagusiaren osagarria da); Zerbitzuak eskaera egin izatea, nola ofizioz hala aldeetako batek hala eskatuta; eta interesdunei entzun izatea (printzipio kontraesankorra).

Bistakoa da eskakizun formal guztiak bete direla, JAI ALIVE SLk EUSKO BASQUE SLren aurka egindako salaketaren ondorioz hasi den espediente baitago. Bestalde, Zerbitzuak eskatzaileak eskatutakoetan oinarrituta helarazi



ditu aipatu neurriak eta, azkenean, interesdunak alegazioak egin ahal izan dituzte Auzitegian.

Eskakizun formal horiekin batera, badira beste eskakizun material batzuk ere. Horien arabera, garbi egon behar du salatutako egitateak gertatu direla (horiek LDLko arauak urratzea ekar dezakete eta kalteak eragiten ari dira eta, beraz, berehala geldiarazten ez badira, ebazpen nagusiaren eraginkortasuna uki dezakete –“fumus boni iuris” eta “periculum in mora”–) eta neurriek espediente nagusiaren bidez lortu nahi denarekiko proportzionalak izan behar dute.

HIRUGARRENA.- Eskatutako neurrien beharra, proportzionaltasuna eta egokitasuna

Adierazitako printzipioak aztertzen hasi aurretik, komenigarria da zehaztea ea proposatutako neurria LDLren 54. artikuluko lege-babesaren pean dagoen edo, alderantziz, ea enpresa salatzailleak kautelazko neurriak hartzeko egindako eskaeraren izaerak eta edukiak aipatu manuan ezarritako legezko mugak gainditzen dituen.

LDLren 54. artikulua LDEZri ematen dio Auzitegiari, ofizioz edo alde batek hala eskatuta, “unean-unean ematen den ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzera bideratutako beharrezko kautelazko neurriak” proposatzeko eskumena. LDLn ezarrita dagoen kautelazko neurrien prozeduraren araubide juridikoak testu hori biltzen du hasieran eta, bertan, kautelazko neurriak lehiaren defentsaren lege-esparruan duten izaera eta eginkizuna aipatzen da. Testu horretan lehentasunezko arreta merezi duten bi alderdi nabarmendu behar dira, horiek kautelaren oinarria diren eta hori ahalbidetzen duten euskarriak baitira.

Horietatik lehenak dio kautelazko neurriek “beharrezkoak” izan behar dutela. Horrek adierazten du kasuan kasuko prozedura berezia dela eta, ondorioz, Auzitegiak kautelazko neurrien inguruan jasotzen duen eskaera-kopurua gorabehera, horiek hartzea apartekoa dela. Horren haritik, LDAren hainbat ebazpenetan, besteak beste, 2006ko urriaren 2koan (MC 36/06 espediente, AXIÓN-ABERTIS) eta 1992ko abenduaren 9koan (MC 5/92 espediente, GESTEVISIÓN TELECINCO), jasotzen da 16/1989 Legearen 45. artikuluko prozedura (egungo Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 54. artikulua) *“kontu handiz administratu behar duela organo horrek eta txukun bete behar dutela administratuek, ezartzen den kautelazko neurriaren espirituari eta xedeari jaramon eginez”*.

Oinarrizkoa eta nahitaezkoa den bigarren elementua transkribatutako legetestuan jasota dago. Horrek ematen dio bide LDEZri “bere garaian ematen den ebazpenaren eraginkortasuna bermatzera bideratutako” beharrezko kautelazko neurriak proposatzeko. Horrela, agerian geratzen da kautelazko neurrien instrumentaltasuna, horien xedea, hain zuzen ere, prozedura nagusiari egokitzen zaion ebazpenaren eraginkortasuna ahalbidetzea izanik. Manu hori



aplikatzeak agerian utzi du LDAren irizpidea, besteak beste, MC 22/99 espedientean (Contenedores Tenerife) emandako ebazpenean. Honela dio: *“LDLk kautelazko neurriak ez ditu soilik bukaerako ebazpenaren eraginkortasuna handitzeko bitartekotzat hartzen, baizik eta, izaera mugatuarekin bakarrik, helburu hori bermatzeko beharrezkotzat”*.

Aurreko paragrafoetan azpimarratutako bi alderdiek kautelaren berri ematen diote arau-sistemari. Horrela, Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduko 41.4 artikulua arabera, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak, ofizioz edo interesdunek hala eskatuta, eta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak txostena egin ondoren, “espedientea izapidetzen den edozein unetan kautelazko neurrien etendura, aldaketa edo ezeztatzea erabaki ahal izango du, bat-bateko edo neurriak hartu ziren unean jakin ezin ziren inguruabarren arabera”. Ondorioz, kautelazko neurriak behin-behinekoak dira, horiek ezin baitira, inola ere, behin betiko erabaki gisa hartu. Halaxe azaldu zuen LDAk MC 36/06 (AXIÓN-ABERTIS) eta MC 31/00 (SIGESA) espedienteetan. Horietan adierazi zen orobat eskumena duela kautelazko neurriak “aldatzeko”, hau da, prozedura berezi honetan neurriak ez direla soilik behin-behinekoak, baizik eta baita aldakorrak ere.

Bestalde, adierazi du Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduaren 40.2 artikuluan jasotako xedapenak “debekatu egiten duela interesdunei konpondu ezin diren galerak sortu edo oinarrizko eskubideen urraketa eragiten duten kautelazko neurriak ematea”. Legezko muga horiek garbi uzten dute kautelaren esparruan proportzionaltasuna ere aplikatzen dela. Printzipio hori, kasuan kasu, hartutako neurriari aplikatzen zaio eta, horren baitan, neurria lortu nahi diren xedeetara egokitu behar da, aipatu arauak hartu eta ezartzen duen eremuaren barruan.

LAUGARRENA.- JAI ALIVE SL enpresak proposatutako neurriak egokiak ez izatea

Auzitegiari bidalitako proposamenean, LDEZk uste du EUSKAL TELEBISTA SAren eta EUSKO BASQUE SLren arteko kontratua eteteko kautelazko neurria, honela emanda, berehala izango litzatekeela eraginkorra eta horrek tartean den merkatua aldatzea ekar lezakeela. Hala, prozedura nagusia eragin duen salaketak aurrera egingo ez balu, ondoren nekez inbertitu ahal izango litzateke kontratuaren bilakaeran.

LDEZren arrazoibideak eskatutako neurriaren izaera eta garrantzia hartzen du kontuan. Neurri horren bidez, EUSKO BASQUE SLk eta EUSKAL TELEBISTA SAk zesta-puntako partidak emateko baldintzak aurrez arautzeko egin zuten akordioa eten nahi da, hasitako zigor-prozedura amaitzen duen behin betiko ebazpena eman arte itxaron gabe. Proposatutako kautelazko neurria hartuz gero, behin betikoa izango liratekeen erabakia hartzeko unea aurreratuko litzateke, jarritako salaketak aurrera egingo balu.



Horren haritik, esan behar da kautelazko neurri hori eskatzeak garbi uzten duela ez zaiola arauari jaramonik egiten kautelaren esparruan hain funtsezkoa den alderdi bati dagokionez, alegia, behin-behinekotasunari. Hau, kasu honetan, desagertu egiten da, eskatutako neurriaren izaera eta garrantzia direla medio; alegia, neurria berehala gauzatu behar da, behin betiko erabaki gisa hartu da eta, ondorioz, ez ditu errespetatzen dagozkion behin-behinekotasun, iragankortasun eta aldakortasunaren printzipioak.

Bestalde, LDEZren proposamenean agerian uzten den bezala, komenigarria da ez ahaztea neurri horrek, proposatu den bezala hartzen bada, tartean den merkatua aldatzea ekar lezakeela. Hala, hainbestearainokoa izan liteke aldaketa, ezen, prozedura nagusia eragin duen salaketak aurrera egingo ez balu, ondoren nekez inbertitu ahal izango bailitzateke kasuan eta ez bailitzateke aukerarik egongo neurria gauzatzearen ondoriozko kalteak ordaintzeko, legokiokeen fidantza jartzeko eskatu arren.

Horregatik guztiagatik, LDLn ezarritako printzipio formalak errespetatu arren, eskatutako neurria ez dator bat aipatu arauarekin eta, beraz, Auzitegiak uste du ez dela hartu behar eta, ondorioz, espedientea izapidetzen jarraitu behar dela, bidezkoa den erabakia hartu arte, behin ikerketa- eta instrukzio-jarduera egokiak burututa.

BOSGARRENA.- “Periculum in mora” edo berandutzeko arriskuaren printzipioa tartean ez izatea

Bigarren, arauak ezarritako eskakizuna tartean ote den aztertu behar da, alegia, bukaerako ebazpena ematerakoan berandutzeko arriskua ba ote dagoen. “*Periculum in mora*” bi kontzeptuk osatuta dago: emaitzarik ez izatearen arriskuak eta atzerapenaren arriskuak, LDLren 54. artikulua ezarritako kautelazko neurrietan bildua. Horren ildotik, esamolde horiek ez dute balio, soilik, berandutzeko arriskua zehazteko; horrez gain, arriskuak kautelaren oinarri gisa eta, aldi berean, hori mugatzeko irizpide gisa ere jardun ahal izango du.

Auzitegi Konstituzionalak adierazi du (besteak beste, abenduaren 17ko 238/92 epaia) kautelazko neurriek organo jurisdikzionalaren etorkizuneko erabakiaren eraginkortasuna bermatzeko beharrari erantzuten diotela, alegia, lortu nahi denaren aldeko epaitza emanaz gero, hori zuzenbidearen kontrako egoerei eusteagatik edo horiek modu atzeraezinean finkatzeagatik eraginkortasunik gabe gera dadila saihesteko beharrari.

Kasu honetan, JAI ALIVE SL enpresak adierazi du beldur dela “*Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak debekatutako jokabidea (EUSKAL TELEBISTA SAK EUSKO BASQUE SL eta MASTER JAI SLrekin egindako kontratua)*”



eteteko aginduz eman dezakeen ebazpena ez eraginkorra edo alferrikakoa izango ote den ebazpena emateko unean, ordurako JAI ALIVE SL enpresa beharbada merkatutik kanpo egongo baita eta sektorea salatutako EUSKO BASQUE SL eta MASTER JAI SLren esku egongo den monopolioa baino ez baita izango". Hain zuzen ere, alegatu du, "EUSKO BASQUE SLk eta MASTER JAI SLk EUSKO TELEBISTA SArekin egindako kontratuari esker eta haiek lortzen dituzten diru-sarrerei eta izen onari esker, bidegabeko lehian aritu daitezkeela; hala, egun dauden mailako pilotari ia guztiak fitxatzen dituzte".

Arestian aipatu bezala, EUSKAL TELEBISTA SAre eta EUSKO BASQUE SLren artean sinatutako kontratuak ez du ezartzen azken horri eskusibotasuna emango zaionik eta, beraz, horri esker, EUSKAL TELEBISTA SAK beste erakunde batzuekin egin ditzake partidak emateko zuzeneko kontratuak. Hala ere, Auzitegian aurkeztutako alegazio-idazkian, enpresa salatzaileak klausula baten garrantzia nabarmendu du, alegia, kontratuaren 2. hizpaketarena; horren baitan, EUSKO BASQUE SLri lagako zaizkio munduko txapelketak emateko eskubideak (txapelketa horiek beste erakunde batzuek antolatzen dituzte: Euskadiko Pilota Federakuntzak, Munduko Kontseiluak eta Nazioarteko Pilota Federakuntzak). Halaber esan du EUSKO BASQUE SL enpresak gehiegikeriaz erabiltzen duela eskubide hori, interes propioen alde eginez (pilotariak hautatzerakoan, egoitzak aukeratzerakoan, etab.) eta lehiakidearen interesen kaltetan.

LDEZk orain arte garatu duen instrukzio-prozesutik ezin ondoriozta daiteke JAI ALIVE SLk egindako salaketak behar bezala egiaztatuta daudenik. Bestalde, horien inguruan ekarritako dokumentazioan ikus daiteke, txapelketa horietan, enpresa guztietako pilotariak parte hartzen dutela, baita salaketa jarri duen enpresakoek ere.

Hortaz, ez dirudi benetako arriskua eragin dezakeenik espediente nagusia izapidetzeko prozesua atzeratzeak. Alderantziz, kontratua eteteak segurtasunik eza eta ziurgabetasuna eragin liezaieke profesionali, enpresei, partidak antolatu nahi izan ditzaketen udalerrii eta oro har zesta-puntaren zaleei.

EUSKO BASQUE SL enpresak ustez egin dituen gehiegikeriez ohartarazteko salatzaileak egin dituen alegazioek garrantzi handia izan lezake zigor-espedientea izapidetzearen esparruan, horren baitan bidezkoa bailitzateke zigor daitezkeen debekatutako jokabideak eduki izana egiaztatzea, baina, egun, ez dute kautelazko neurria hartzeko beharra justifikatzen.

SEIGARRENA.- "Fumus boni iuris" edo zuzenbide egokiaren itxuraren printzipioa

"Fumus boni iuris" edo zuzenbide egokiaren itxuraren printzipioak adierazten du erabakia hartu behar duenak ziur dakiela behin-behineko neurria eskatu duenak



eskubideak dituela eta, nolana ere, kaltetutako interes publikoa dagoela. Ziurtasun horrek behar bezain sendoa izan behar du, behin betikoa izan ez arren, garrantzitsua den eta bestelako egiaztapenik egin beharrik gabe hartzen den erabakia hartu ahal izateko. Horrek ez dakar, soilik, aldeak duen eskubidea itxuraz existitzea, alegia, “prima facie” hauteman ahal izatea, baizik eta, horrez gain, eskubideak behar besteko garrantzia izan behar du, prozedura laburtuan hartutako neurri bat justifikatu ahal izateko. Horrek esan nahi du eskubideak ez duela soilik itxurazkoa izan behar, bestelako egiaztapenik egin beharrik ez dakarrena (egiaztapen horiek espediente nagusian egingo dira), baizik eta, horrez gain, nolabaiteko proportzioa egon behar du babestu nahi den helburuaren eta kautelazko neurriaren edukiaren artean. Hori beharrezkoa da, nolabaiteko oreka egon behar baitu tartean diren interesen artean.

Esan bezala, eztabaidatutako kontratuak ez dio inolako eskusibotasunik ematen EUSKO BASQUE SL enpresari, klausulen edukiak jasotzen duen moduan. EUSKAL TELEBISTA SA enpresak alderdi hori berretsi du LDEZk bidalitako informazio-eskaerari erantzuteko idazkian eta Auzitegian aurkeztutako alegazio-idazkian. Bestalde, JAI ALIVE SL enpresak berak dio gutxienez lautan egin dituela akordioak EUSKAL TELEBISTA SArekin bere enpresako pilotariei zegozkien partidak emateko.

Hala ere, ikus-entzunezko baliabideak funtsezkoak diren garai honetan zesta-puntak egun bizi duen egoerak garbi adierazten du lehentasunezko tratua ematen ari zaiola EUSKO BASQUE SLri EUSKAL TELEBISTA SA enpresak, alegia, zesta-puntako txapelketak emateko interesa duen telebistako kate bakarrak, dituen harremanetan.

Harreman hori arrazoi historikoetan oinarrituta dago, EUSKO BASQUE SLk merkatu honetan duen presentzia eta ibilbidearekin eta txapelketak antolatzen duen esperientzia handiarekin lotuta. EUSKAL TELEBISTA SArekiko harremana gutxienez 1996az geroztik dator eta, egun, kontratu baten bidez araututa dago. Kontratu hori 2007ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean eta 2009ko abenduaren 31n amaituko da. Kontratuan jasotako klausulen artean, honakoak azpimarra ditzakegu:

- EUSKO BASQUE SLk txapelketak antolatzeko dituen betebeharre lotutakoa. Horren arabera, EUSKO BASQUE SLk hitzematen du “urtean gutxienez zesta-puntako 22 txapelketa antolatuko dituela, horien artean munduko zesta-puntako txapelketa, eta horiek banan-banan ustiatzeko eskubideak EUSKAL TELEBISTA SAri lagako dizkiola” (2. hizpaketa), eta
- Eskaintako txapelketen gaineko eskubideen prezioari eta ordaintzeko moduari dagokiena. Horren arabera, EUSKO BASQUE SLk 4.160 € kobratuko ditu ohiko txapelketa bakoitzeko eta 8.905 euro munduko zesta-puntako txapelketa bakoitzeko.



2004ra arte enpresa hori zen zesta-punta profesionalaren merkatuan ziharduen bakarra. Hala ere, aipatu urtean, JAI ALIVE SL enpresa zesta-puntaren sektorean sartu zen; hala, hainbat pilotari profesional kontratatu zituen eta kirol-ikuskizunak antolatu zituen.

Kontuan izan behar da EUSKAL TELEBISTA SA era horretako kirol-ikuskizunak emateko interesa duen telebistako kate bakarra dela (LDEZren jardueretan bildutako dokumentazioan ageri den bezala) eta, hori dela eta, oso eginkizun garrantzitsua du egun dagoen lehia sustatzen eta kirol hau sustatzen. Halaber esan behar da interes hori ez dagoela errentagarritasun ekonomikoko arrazoietan oinarrituta, baizik eta euskal kirola sustatzearekin erlazionatutako interes publikoko arrazoietan. Horregatik, enpresa publiko honen jarduerak eta zesta-puntaren merkatuan diharduten enpresekiko dituen harremanek irizpide objektibo eta ez diskriminatzaileetan oinarrituta egon behar dute.

Zesta-puntaren merkatuaren egitura monopolistikoa izan da 2004ra arte. Beste lehiakide bat agertu denez, beharrezkoa da merkatu honetara sartzeko eta horren funtzionamendua zehazteko baldintzak egokitzea, aukera-berdintasuna bermatzearen, bereziki, ikus-entzunezkoen merkatura sartzeari dagokionez.

Aurreko oinarrietan aztertutako printzipioak betetzen ez direnez, ez da beharrezkoa "fumus boni iuris" printzipioa errespetatzearen inguruko analisi juridikoa egitea JAI ALIVE SL enpresak egindako eskaeraren xede den kautelazko neurria onartu edo gaitzestearen ondorioetarako.

Bestalde, prozeduraren oraingo egoeran LDEAk ezin du balorazio juridikorik egin enpresa salatzaileak lehiakideari leporatu dizkionen inguruan, LDEZ espedientea bideratzen ari baita. Salatutako gertakarien inguruko balorazioa ebazpen-fasean egingo du Auzitegiak. Ebazpena honakoa izan daiteke: espedientea artxibatzea, zigortzea, edo ohiko amaieraren bidez aldeek konpromisoak berenganatzekoa.

Aurreko guztiaren ondorioz,

Aipatu manuak eta oro har aplikagarri diren gainerakoak **IKUSITA**, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak honakoa



EBATZI DU

LEHENENGOA.- IÑAKI EGIGUREN URBISTONDO jaunak JAI ALIVE SLren izenean eta ordezkartzan aurkeztu zuen kautelazko neurriak hartzeko eskaera gaitzestea.

BIGARRENA.- Ebazpen hau Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari jakinaraziko zaio, baita interesdunei ere; hauei, gainera, ohartaraziko zaie ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duela, baina, hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dutela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hileko epean, jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita.